# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Foru Aginduak*

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

OGASUN ZUZENDARITZA

**0014**

**673/2007 FORU AGINDUA, abenduaren 27koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena. Honen bidez, 039 eredua onartzen da, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainketako erakunde taldeen araubide berezian daudenek datuak emateko aurkeztu beharrekoa, alegia.**

Otsailaren 20ko 1/2007 Foru Dekretu Arauemaileak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Arauemailea aldarazi zuen zerga iruzurraren aurkako azaroaren 29ko 36/2006 Legera egokitzeko.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan egin diren aldaketetako bat IX. tituluari beste kapitulu bat, IX. kapitulua, gehitzea izan da; kapitulu honetan erakunde taldeen araubide berezia ezarri da.

Beste alde batetik, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arautegiko 61.bis artikuluan ezarri denaren arabera, araubide berezi hau aplikatu nahi duten erakunde taldeetako erakunde nagusiek taldeko erakundeen inguruko zentsu informazio jakina eman behar diote Zerga Administrazioari.

Betebehar hori bideratzeko 039 eredua onartu da, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainketako erakunde taldeen araubide berezian daudenek datuak emateko aurkeztu beharrekoa.

Horregatik guztiagatik, aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo. 039 eredua onartzea.

Bat. 039 eredua onartu da, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainketako erakunde taldeen araubide berezian daudenek datuak emateko aurkeztu beharrekoa. Foru agindu honen eranskinean ageri da.

Ereduak ale bi dauzka; bat, Administrazioarentzat, eta bestea, berriz, interesdunarentzat.

Bi. 039 eredua urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Arauemailearen 163 quinquies.Bi artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz erakunde taldeko nagusi den erakundeak aurkeztu behar du, eta beraren helburua Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko IX. tituluko IX. kapituluan ezarritako araubide bereziaren aplikazioaren berri ematea da, edo, bestela, Foru Dekretu Arauemaileko 163 sexies.Bost artikuluan ezarritako aukeraren aplikazioaren berri ematea. Azken kasu honetan, erakunde nagusiak talde barruko eragiketetan lain bereziaren erregela (Zergari buruzko Foru Arauko 103.bi.1. artikulua) aplikatu nahi duela ere jakinaraz dezake. Hau guztia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arautegiaren 61.bis artikuluko 1, 2 eta 3. idatz-zatietan xedatutakoari lotuta egin behar da. Gainera, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 163.sexies.bost artikuluko aukerari uko egiteko ere 039 eredua aurkeztu behar da.

Erakunde nagusiak 039 eredua, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainketako erakunde taldeen araubide bereziaren inguruko datuei buruzkoa, aurkeztu behar du Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Arautegiaren 61.bis artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako urteko berriematea egiteko, bai eta araubide berezia aplikatzen duten

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Órdenes Forales*

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

DIRECCIÓN DE HACIENDA

**0014**

**ORDEN FORAL 673/2007, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de 27 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 039 de comunicación de datos relativa al régimen especial del grupo de entidades en el Impuesto sobre el Valor Añadido.**

El Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/2007, de 20 de febrero, modificó la Norma Foral del Impuesto sobre el Valor Añadido aprobada mediante el Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero para adaptarla a la Ley 36/2006, de 29 de noviembre, de medidas para la prevención del fraude fiscal.

En concreto, unas de las modificaciones introducidas, consiste en añadir un nuevo Capítulo IX al Título IX a la Norma Foral del Impuesto sobre el Valor Añadido a través del cual se regula el nuevo Régimen especial del grupo de entidades.

Por otra parte, el artículo 61.bis del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, establece la obligación, que incumbe a la entidad dominante de un grupo de entidades que vayan a aplicar este régimen especial, de comunicar a la Administración Tributaria determinada información censal relativa a las entidades que conforman el grupo.

Para cumplir con la obligación mencionada en el párrafo anterior, se aprueba el modelo 039 de "Comunicación de datos relativa al régimen especial del grupo de entidades en el Impuesto sobre el Valor Añadido".

En su virtud, y en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero. Aprobar el modelo 039

Uno. Se aprueba el modelo 039 de "Comunicación de datos relativa al Régimen especial del grupo de Entidades en el Impuesto sobre el Valor Añadido" que figura como anexo único a la presente Orden Foral.

Este modelo consta de dos ejemplares, uno para la Administración y otro para el interesado.

Dos. El modelo 039 será presentado por quien tenga la consideración de entidad dominante del grupo de entidades, según lo dispuesto en el artículo 163 quinquies.Dos del Decreto Foral Normativo 12/1993, de 19 de enero, y se utilizará para comunicar la aplicación del régimen especial previsto en el Capítulo IX del Título IX de la Norma Foral del Impuesto sobre el Valor Añadido, así como en su caso, la opción establecida en el artículo 163.sexies.Cinco del citado Decreto Foral Normativo, en cuyo caso, podrá comunicar también la opción por la aplicación de la regla de prorrata especial a que se refiere el artículo 103.Dos.1º de la Norma Foral del Impuesto, en relación con el sector diferenciado de las operaciones intragrupo, todo ello, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 61.bis apartados 1, 2 y 3 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido. Asimismo, la renuncia a la opción regulada en el artículo 163 sexies.Cinco de la Norma Foral del Impuesto sobre el Valor Añadido se formalizará por medio de la presentación del modelo 039.

La entidad dominante deberá presentar, también, el citado modelo 039 de "Comunicación de datos relativa al Régimen especial del Grupo de Entidades en el Impuesto sobre el Valor Añadido", para realizar la comunicación anual prevista en el apartado 4 del artículo 61.bis del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, así como,

taldeko erakundeen inguruko aldaketaren bat gertatzen denean eta araubide bereziari uko eginez gero ere.

Bigarren. 039 eredua aurkezteko era eta lekua

039 eredua paperean soilik aurkez daiteke, Arabako Foru Aldundiaren Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko bulegoetan, edo posta arruntez zein ziurtatuz bulego horietara igorrita.

Hirugarrena.- 039 eredua aurkezteko epea

Orokorrean, 039 eredua jakinarazten diren aukerek edo ukoek ondoreak izan behar dituzten egutegiko urteko aurreko abenduan aurkeztu behar da; hona hemen salbuespenak:

a) Urtean araubide berezia aplikatzen duten taldeko erakundeetan aldaketaren bat gertatuz gero, aldaketa gertatu den likidazioaldiko autolikidazioa aurkezteko ezarritako epealdiaren barruan aurkeztu behar da.

b) Enpresa edo lanbide jarduerei ekinez gero, edo Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 163.sexies. Bost artikuluan ezarritako aukerari heldu dion erakunde talde bateko enpresaburuek edo profesionalek orain arte egiten izan dituztenak ez beste arlo bateko jarduera berri bati ekinez gero, talde barruko eragiketen arlo bereizian lain bereziaren erregela (Zergari buruzko Foru Arauko 103.bi.1. artikulua) aplikatzea hautatzen bada, taldeko erakunde nagusiak 039 eredua aurkeztu behar du hautapenaren berri emateko, eta aurkeztu ere jarduera horietako ohiko ondasun emateak edo zerbitzuak hasten diren epealdiko autolikidazioa aurkezteko ezarritako epealdiaren barruan.

c) Araubide berezia aplikatzen duen talde bati abenduan erakunde bat atxikitzen bazaio, horren berri emateko 039 eredua aurkeztu behar da erakundea taldeari atxikitzen zaionetik urtarrilaren 30era bitarteko epealdian.

d) Araubide berezia aplikatzen duen talde bati erakunde sortu berriren bat atxikitzen bazaio, taldeko erakunde nagusiak horren berri eman behar du, eta horretarako 039 eredua aurkeztu behar du atxikitzea gertatzen den likidazioaldiko autolikidazioa aurkezteko ezarritako epealdiaren barruan.

### Azken xedapena

Foru Agindu hau, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean jarriko da indarrean, eta 2007ko abenduaren 1etik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko abenduaren 27a.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua, José Luis Cimiano Ruiz.– Ogasuneko zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

cuando se produzca cualquier modificación que afecte a las entidades del grupo que apliquen el régimen especial, y en el supuesto de renuncia a la aplicación del citado régimen.

Segundo. Forma y lugar de presentación del modelo 039

La presentación del modelo 039 se realizará exclusivamente en papel, en las oficinas del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava, o bien, a través de correo ordinario o certificado dirigido a la mencionada oficina.

Tercero. Plazo de presentación del modelo 039

La presentación del modelo 039 se efectuará, con carácter general, en el mes de diciembre anterior al inicio del año natural en el que deban surtir efecto las opciones o renuncias que se comuniquen a través del mismo, con las siguientes excepciones:

a) Cuando se produzcan modificaciones a lo largo del año que afecten a las entidades del grupo que aplican el régimen especial, se presentará dentro del plazo establecido para la presentación de la autoliquidación correspondiente al período de liquidación en que se produzca la modificación.

b) En los supuestos de inicio de actividades empresariales o profesionales o de inicio de una actividad que constituya un sector diferenciado respecto de otras que venían desarrollando con anterioridad empresarios o profesionales que formen parte del grupo de entidades y que hayan ejercido la opción establecida en el artículo 163.sexies.Cinco de la Norma Foral del Impuesto sobre el Valor Añadido, si optan por la aplicación de la regla de prorrata especial a que se refiere el artículo 103.Dos.1º de la Norma Foral del Impuesto en relación con el sector diferenciado de las operaciones intragrupo, la entidad dominante del grupo presentará el modelo 039 comunicando dicha opción dentro del plazo establecido para la presentación de la autoliquidación correspondiente al período en el que se produzca el comienzo de la realización habitual de las entregas de bienes o prestaciones de servicios correspondientes a tales actividades.

c) En el supuesto de que en el mes de diciembre se produzca la incorporación de cualquier entidad a un grupo que aplique el régimen especial, la comunicación de esta circunstancia se realizará presentando el modelo 039 en el período comprendido entre la fecha de incorporación de la citada entidad al grupo hasta el 30 de enero siguiente.

d) Cuando en un grupo que viniera aplicando el régimen especial se incorporen entidades de nueva creación, la entidad dominante del grupo comunicará esta circunstancia presentando el modelo 039 dentro del plazo establecido para la presentación de la autoliquidación correspondiente al período de liquidación en el que se haya producido la incorporación.

### Disposición final

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, con efectos desde el 1 de diciembre de 2007.

Vitoria-Gasteiz, a 27 de diciembre de 2007.– El Diputado de hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSE LUIS CIMIANO RUIZ.– El Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

## Eranskina / Anexo

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava
Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

**BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ERAKUNDE TALDEEN ARAUBIDE BEREZIAREN INGURUKO DATUEN BERRI EMATEKO EREDUA**

***COMUNICACIÓN DE DATOS RELATIVA AL RÉGIMEN ESPECIAL DEL GRUPO DE ENTIDADES EN EL IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO***

# 039

IDENTIFIKATZEKO ETIKETA JARTZEKO ESPAZIOA
*ESPACIO RESERVADO PARA ETIQUETA IDENTIFICATIVA*

TALDEAREN ZENBAKIA:
*NÚMERO DE GRUPO:*

## AURKEZTEKO ARRAZOIAK / *CAUSAS DE PRESENTACIÓN*

### 1 - ALTA / *1- ALTA*

- ☐ Altaren berri ematea
  *Comunicación de alta*
- ☐ Altaren berri ematea, taldearen zenbakia atxikita
  *Comunicación de alta conservando el número de grupo*
- ☐ BEZari buruzko Arauko 163 sexies. Bostean ezarritako aukeraren hautapenaren berri ematea
  *Comunicación opción art. 163 sexies. Cinco Norma del IVA*

### 2 - BAJA / *2- BAJA*

- ☐ BEZaren erakunde taldeen araubide bereziari uko egitea
  *Renuncia al régimen especial del grupo de entidades del IVA*

### 3 - ALDAKETA / *3 - MODIFICACIÓN*

- ☐ BEZari buruzko Arauko 163 sexies. Bostean ezarritako aukeraren hautapenaren berri ematea
  *Comunicación opción art. 163 sexies. Cinco Norma del IVA*
- ☐ BEZari buruzko Arauko 163 sexies. Bostean ezarritako aukerari uko egitea
  *Renuncia opción art. 163 sexies. Cinco Norma del IVA*
- ☐ BEZari buruzko Arauko 103.Bi.1. artikuluko hainbanaketa berezia hautatzea edo ezeztatzea
  *Opción o revocación porrata especial art. 103 dos 1º Norma del IVA*
- ☐ Araubide berezia aplikatzen duten erakundeak aldatzea
  *Modificación entidades que aplican el régimen especial*

### 4 - URTEKO BERRIEMATEA / *4 - COMUNICACIÓN ANUAL*

- ☐ BEZari buruzko Arauko IX. tituluko IX. kapituluan ezarritako araubide berezia aplikatzen duten erakundeen urteko berriematea
  *Comunicación anual entidades que apliquen el régimen especial previsto en el capítulo IX del Título IX de la Norma del IVA*

## TALDEKO ERAKUNDEEN IDENTIFIKAZIOA
## *IDENTIFICACIÓN ENTIDADES INTEGRANTES DEL GRUPO*

ARAUBIDE BEREZIAN DAUDEN TALDEKO ERAKUNDEAK
*ENTIDADES DEL GRUPO QUE TRIBUTAN EN EL RÉGIMEN ESPECIAL*

| **Erregistro zk.** *Nº Registros* | **IFZ** *NIF* | **Alta (Data)** *Alta (Fecha)* | **Baja (Data)** *Baja (Fecha)* | | **Partaidetza ehunekoa** *Porcentaje de participación* | **Partaidetzen eskuraketa data** *Fecha adquisición participaciones* | **Hainbanaketa berezia** *Prorrata especial* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | **Uko** *Renuncia* | **Baztertu** *Exclusión* | | | **Hautatu** *Opción* | **Ezeztatu** *Revocación* |
| Erak. nagusia: *Entid. dominante* | | | | | | | | |
| Menpeko erak.: *Entid. dependientes* | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| Erregistroak, guztira *Total registros* | | | | | | | | |

Tokia / *Lugar:*

Data / *Fecha:*

Sin / *Firma:*

jn./and. / *Firmado D.Dª.:*

RE. 07/279